

Iruñean, bi mila eta hamabosteko urtarilaren
hogeita batean

BILDURIK

Alde batetik, Nafarroako Parlamentuko
lehendakari Alberto Catalán Higuera jauna,

Eta, bestetik, euskaltzainburu Andrés
Urrutia Badiola jauna.

Bi aldeek, elkarri gaitasuna eta daukaten
ordezkaritza ezagututa,

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE:

LEHENA: Nafarroako Parlamentuak
euskarazko datu- eta agiri-base bat dauka,
Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986
Foru Legean eta Legebiltzarreko
Erregelamenduan jasotakoa betez
Legebiltzarreko zerbitzu teknikoek egindako
itzulpen lanak gordetzeko beharraren ondorioz
sortutakoa. Datu-baseak euskarazko
terminologiako eta parlamentu-lexikoko balio
handiko funts bat dauka, zeina kontserbatu eta
gaurkotu nahi baita parlamentu-esparruko beste
erakunde batzuekin ere lan eginez.

BIGARRENA: Euskaltzaindia hainbat
erakunderekin lan bat egiten ari da, Eusko
Legebiltzarrean, Nafarroako Parlamentuan eta
Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko batzar
nagusietan erabiltzen den parlamentu-lexikoa
bateratzeko.

En Pamplona, a veintiuno de enero de dos mil
quince.

REUNIDOS

De una parte, Don Alberto Catalán Higuera,
Presidente del Parlamento de Navarra,
Y, de otra, D. Andrés Urrutia Badiola, Presidente
de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua
Vasca.

Ambas partes, reconociéndose mutuamente su
capacidad y la representación que ostentan,


MANIFIESTAN

PRIMERO: Que el Parlamento de Navarra
cuenta con una base de datos y documental en
euskera creada como consecuencia de la
necesidad de conservar los trabajos de
traducción realizados por los servicios técnicos
de la Cámara en cumplimiento de lo dispuesto
en la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del
Vascuence y en el Reglamento de la Cámara.
La base de datos contiene un valioso fondo de
terminología y de léxico parlamentario en
euskera que interesa conservar y actualizar en
colaboración también con otras instituciones del
ámbito parlamentario.

SEGUNDO: Que Euskaltzaindia / Real
Academia de la Lengua Vasca está realizando
con diversas instituciones un trabajo para
unificar el léxico parlamentario utilizado en el
Parlamento Vasco, en el Parlamento de Navarra
y en las Juntas Generales de Álava, Gipuzkoa y
Bizkaia.

HIRUGARRENA: Bi erakundeak bat datoz komenigarria eta beharrezkoa dela parlamentu-lexikoa bateratzea, amankomunean jarriz euskaraz egindako ahozko hitzaldien eta testuen tratamenduan eta itzulpenean espezializatutako unitate administratiboak dauzkaten zenbait erakundetan egindako lana, bai eta euskarazko testuak eta agiriak Euskaltzaindiak koordinatutako lantaldearen eskura jarriz ere.

LAUGARRENA: Euskaltzaindia "Lexikoaren Behatokia" izeneko proiektua garatzen ari da, zeinak base bat baitauka egungo euskararen 50 milioi hitz-testurekin, esparru eta formatu desberdinetan erabiliak. Hitz-testu horiek behar bezala oharreztatuta, etiketatuta eta lematizatuta daude. Proiektu honek bi helburu dauzka: alde batetik, kontsultagarri egotea Euskaltzaindiak garatutako ikerketa-lanetan, Akademiak emandako arauak gaurkotzekoetan nahiz etorkizunean aldatzekoetan; eta, bestetik, funtsezko atal bat izan nahi du "XXI. Mendeko Euskararen Corpusa" izeneko proiektu zabalago batean, zeinari ekin nahi baitio Euskaltzaindiak etorkizunean. Bi helburu horietan sakondu ahal izateko, garrantzitsua da "Lexikoaren Behatokia" proiektuan sartutako testuen jatorria aberastu eta ugaritzea.


Azaldutako guztia dela eta, honako klausulak adosten dituzte

TERCERO: Que ambas instituciones coinciden en la conveniencia y necesidad de unificar el léxico parlamentario mediante la puesta en común del trabajo realizado en diversas instituciones que cuentan con unidades administrativas especializadas en el tratamiento y traducción de textos e intervenciones orales en euskera, así como a través de la puesta a disposición del grupo de trabajo coordinado por Euskaltzaindia de los textos y documentos en euskera.

CUARTO: Que Euskaltzaindia está desarrollando el proyecto Lexikoaren Behatokia / Observatorio del Léxico que cuenta con una base de alrededor de 50 millones de palabras-texto del euskera actual utilizadas en distintos ámbitos y formatos. Estas palabras-texto están debidamente anotadas, etiquetadas y lematizadas. Este proyecto tiene dos objetivos: por un lado, servir de consulta en los trabajos de investigación desarrollados por Euskaltzaindia para la actualización o modificación futura de las normas dadas por la Academia; y por otro, convertirse en parte esencial de un proyecto más amplio denominado XXI. Mendeko Euskararen Corpusa / Corpus del Euskera del Siglo XXI que pretende abordar Euskaltzaindia en el futuro. Para poder ahondar en estos dos objetivos, es importante enriquecer y ampliar la procedencia de los textos incluidos en el proyecto Observatorio del Léxico.


Por todo lo expuesto, acuerdan las siguientes

KLAUSULAK

Lehenengoa: Hitzarmen honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren ezartzea, parlamentu-lexikoaren bateratze-lana egiteko. Lan horretan, Eusko Legebiltzarrak eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko batzar nagusiek ere parte hartuko dute.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak, 2014ko irailaren 29an egindako bilkuran Mahaiak erabakitakoari jarraituz, itzultzaile bat izendatu zuen parlamentu-lexikoa bateratzeko lantaldean parte har zezan.

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Euskaltzaindiari eskuratzeko erabilgarri dauden testuak, lexikoaren lematizazioari, etiketatzeari eta kasuko oharreztapen linguistikoari ekin diezaien.

 **Hirugarrena:** Euskaltzaindiak konpromisoa hartzen du parlamentu-lexikoa bateratzeaz arduratutako lantaldearen koordinazio-lana egiteko eta, behin lantaldeak bere lana amaituta, Nafarroako Parlamentuaren esku jartzeko bai lan horren emaitzak, bai Nafarroako Parlamentuko zerbitzuak emaitza horiek itzulpen-lanetan erabiltzeko baimena ere.

Laugarrena: Era berean, hitzarmen honetako laugarren adierazpenean jasotakoaren arabera, Euskaltzaindiak erabili ahalko ditu Nafarroako Parlamentuak eskuratzen

CLÁUSULAS

Primera: El objeto de este convenio es establecer la colaboración entre el Parlamento de Navarra y Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca para llevar a cabo un trabajo de unificación del léxico parlamentario, en el que participarán, asimismo, el Parlamento Vasco, y las Juntas Generales de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia.

Segunda: El Parlamento de Navarra, tal y como acordó la Mesa de la Cámara en sesión celebrada el día 29 de septiembre de 2014, designó a un traductor para formar parte del grupo de trabajo de unificación del léxico parlamentario.

El Parlamento de Navarra se compromete a poner a disposición de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca los textos disponibles para su utilización en la lematización del léxico, su etiquetado y anotación lingüística correspondiente.

Tercera: Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca se compromete a llevar a cabo la coordinación del grupo de trabajo encargado de la unificación del léxico parlamentario y, una vez concluido el mismo, a poner a disposición del Parlamento de Navarra los resultados y la autorización para su utilización en los trabajos de traducción de los servicios del Parlamento de Navarra.

Cuarta: Del mismo modo, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, en virtud de la manifestación cuarta recogida en este convenio, podrá utilizar los textos puestos a su disposición

dizkiontestuak, Akademiak garatzen duen Lexikoaren Behatokiaren proiektuko basea aberasteko. Kasu horretan, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuari erabilera horren berri emanen dio, eta Nafarroako Parlamentua proiektu horren laguntzaile gisa agertu ahalko da, hala erabakitzen badu. Erabilera hori eginez gero, proiektu horretan lortutako emaitzak Nafarroako Parlamentuaren esku jartzeko konpromisoa hartzen du Euskaltzaindiak.

Bosgarrena: Lankidetzaz hitzarmen honek indarra hartuko du sinatzen den unean, eta bi urteko indarraldia izanen du; gero, iraupen bereko ondorengo aldiatarako luzatu ahalko da, indarraldia amaitu baino hiru hilabete lehenago sinatzaileetako batek salatzen ez badu.

Aurreko guztiarekin bat datozela adierazteko, hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, errubrika jarri orri bakoitzean, idazkiaren hasieran adierazitako toki eta egunean.

EL PRESIDENTE DE
EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA
DE LA LENGUA VASCA

EUSKALTZAINBURUA

Andrés Urrutia Badiola

por el Parlamento de Navarra, con el fin de ampliar la base recogida en el proyecto Observatorio del Léxico desarrollado por la Academia. Si se da este caso, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca pondrá en conocimiento de dicha utilización al Parlamento de Navarra, pudiendo este aparecer como colaborador en dicho proyecto, si así lo decidiera. En caso de realizarse dicha utilización, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca se compromete a poner a disposición del Parlamento de Navarra los resultados obtenidos en dicho proyecto.

Quinta: El presente convenio de colaboración entrará en vigor en el momento de su firma y tendrá una vigencia de dos años, prorrogable por periodos sucesivos de la misma duración, si ninguna de las partes que lo suscriben lo denuncia en un plazo de tres meses anterior a la finalización de su vigencia.

Y en prueba de conformidad, firman por duplicado el presente Convenio, rubricando cada uno de los folios de que consta, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

EL PRESIDENTE
DEL
PARLAMENTO DE NAVARRA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARIA

Alberto Catalán Higuera